

Vitoria - Gasteiz, 2014ko azaroaren 14an

Lagun agurgarria,

UPV-EHUko Laboratorio de Análisis Sensorial Euskal Herriko Unibertsitatea (LASEHU) laborategitik, azaroan eta abenduan zehar egingo den kontsumitzaile proba batean parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.

Parte hartu ahal izateko, aurretik datu batzuk jaso beharko ditugu: zein maiztasunarekin kontsumitzen dituzun elikagai zehatz batzuk, adina, generoa, noiz izango zenuke posible parte hartzea. Aipaturiko kontsumitzaile probara etorri nahi izatekotan, atxikita dagoen galdera-sorta bete behar duzu eta guri helarazi. Behin zure kontsumitzaile-profila ebaluatuta, zurekin harremanetan jarriko ginateke zure parte-hartzea planifikatzeko. Ordu bateko saio bakarrera etorri beharko zinateke, azaroaren 27 edo 28an edota abenduaren 1 edo 2an, goizeko ordutegian (10:30etan ala 12:30etan) edo arratsaldekoan (17:00etan ala 19:00etan). Azpimarratu nahi izango genuke saiora etortzeko zure konpromisoaren garrantzia.

Ikerketa honetan parte hartu nahi baduzu, erantsitako orria bete eta posta elektronikoaren bidez bidali behar duzu.

Halako kasuetan egiten dugun bezala, oparitxo bat jasoko duzu zure parte-hartzeagatik.

Bakarrik falta zaizu non gauden jakitea. LASEHU, Miguel de Unamuno 3 kalean dagoen Lucio Lascaray Ikergunea eraikuntzaren beheko solairuan dago. Eraikuntza hau Letren Fakultatearen atzealdean dago.

Agur bero bat,

Mónica Ojeda Atxiaga: monica.ojeda@ehu.es

Tlf: 945 014534 (Mónica ala Pilar)

